

# AMERIKANOAREN ILOBAK

Comédie Basque en I acte

P. LARZABAL

*DECOR: Un interieur quelconque.*

## Personnages

Osaba, Arnaud, Ganix, Marie, Joanes, Pattin, Mihikoa  
OSABA: 60 ans, moustache à la Napoléon, Gde chaine de montre. (Tt)  
ARNAUD: Iloba, 30 ans (Karolina)  
MANEX: Bertze iloba, 26 ans (Kitteri)  
GANIX: Bertze iloba, 26 ans (Gazuza)  
JOANES: Bertze iloba, 24 ans (Koxepa)  
PATTIN: 50 ans. Brave paysan (Oianena)  
MIHIKUA: Un mèdecin (60 ans) , avec favoris

**OSABA:** (*assis, il fait ses comptes et maugrée contre ses quatre neveux*): O, bi eta bi lau, sei eta sei, hamabi, hamabi eta bat hamahiru, eta... Ez duk haratik honatik, beraz lau iloba debru horren artian, jan dauzkidate hilabete honetan zortzi mila libra... Bira mila libera... Bira mila libera... Beraz ni izan nuk Ameriketan; han ontsa pekatu ilat zonbat sosen biltzeko... Zerendako? Ene ilobak nitaz baliatzeko... Xxxxx libera hilabetian... Alo, Piarriñe, aski... Askari largaturik. Behar tuk, horiek bide xuxenien ezarri, ale, Piarriño, har zak xilintxa dei aztik iloba horiek.

*(Il sonne)*

**UN A UN** (*entrent les quatre neveux disant*): Hemen niz osaba, zer nahi zinuen?

**OSABA** (*L'oncle les aligne devant lui, en disant*): Hor eman ene aitzinean. (*Puis il leur adresse la parole*) Ene iloba maitiak... Ontsa baliatu baitzizte egun artio nitaz, egun deitzen zauzkit konduen enekin egiterat... Hemendik goiti ez zauzkit gehiago nik haziko... Zuen bizia, nahi duzuen bezala irabaziko duzue. Hor ibili zaizte festaz festa, ostatuz ostatu, mandrenkeriari emanak... Pobretu, ebatsi, tturrindu nauzue... Orari, aski... Nahi duzuen eginen duzue... Zuen bizitzeko manerak hartuko dituzue... Zortzi egun emaiten dauzkitzuet zuen alderdien hartzeko. Baziztea?

**LES QUATRE NEVEAUX:** O, Osaba!

**OSABA:** Ez duk, orik eta arik... Orari arte zuen elhek bihotza hunkitzen zaiten... Hemendik goiti, ez (*en hurlant progressivement*) ez, ez... Aditu duzue: ezetz... Nahi duzuen eginen duzue, baina ez ni baitan konda.

*(Il sort solennellement emportant son coffre. Les quatre s'assoient)*

**ARNAUD:** Hau, gaitza diuk ahatik! Orarikotik xahu gaituk... Ez nian bertze beldurrik

**GANIX:** Debru aberats okitu zikoitza... ze honbertze ontasunen jabe eta fisik ez eman nahi.

**ARNAUD:** Lanian hasi beharko diuk.

**GANIX:** Ni, ez bethi... Ez!

**ARNAUD:** Ez nuk ba ni ere hasiko ez.

**LES DEUX AUTRES:** Ez ni ere.

**ARNAUD:** Zer egin ba?

**GANIX:** Errazue... Badiuk ba aski jasanik gere osaba horrenganik! Huna ene ideia... Osaba hori behar diagu norapeit hemendik despeitu...

**ARNAUD:** Hil, erran nahi duka?

**GANIX:** Zerendako ez! Gu lauak gosiak hiltzia baino, hobe duk hori bakarrik hiltzia. Ontsa bizia izana duk berdin... aski baliatu ahal duk bizi huntaz, nik pozoina nezakek...

**JOANES:** Fu... Ez ene pozoinik aipa... Pozoina arrapa errexa duk... gero tripak idekitzen zaizkote eta han hertzetan miatuz arrapatuko die nundik eta norak hila izan den.

**GANIX:** Zer egin hezakek ba hik?

**JOANES:** Nik, urkha nezakek.

**MANEX:** Fu, itsusi duk hori! Zer holako mihi beltz bat jalia... Harek ikustiak berak bizia laburtuko daitak... Ithotzen baginu?

**GANIX:** Ba, nun ordian? Itsasoa ere urrun duk; gure errekan ez duk aski urik urerat aurthikitzeko ere...

**MANEX:** Ez zakiat ba!

**GANIX:** Hauxe da komedia. Zer egin?

*(Minute de silence)*

**ARNAUD:** To, nik badiat ideia bat, ideia on bat.

**GANIX:** Zein? Errak laster...

**ARNAUD:** Honokoa halere ideia... Gure osaba ero-etxe batian behar diuk sartu.

**GANIX:** To, ez duk gaizki... Hola jendearen beldurrik ez ginikek... Ez duk gaizki... Baina, nola sartuko dut ero-etxean? Ez duk gero eroa osaba. Ez aparientziarik ere.

**ARNAUD:** Utz nazazue ni egiterat... Askiz duzue bakar-bakarrik eta bethi, nik erraiten duana osabari erraiten... Bertze hitzik ez. Baziztea?

**GANIX:** Hik erraiten dukana (Bis), nola hori?

**ARNAUD:** Konpreni azue ontsa: hala ez diren zer nahi erranen bortxaz, gezurra egia dela sinhets araziz, osaba behar diuk eroarazi.

**GANIX:** Baina, nola hori! Ez diat konprenitzen...

**ARNAUD:** Xt... Gorde zaizte...Hara osaba heldu... Sartuko zaizte bat banazka eta nik bezala erran, nik bezal-bezala gero!

*(Les trois disparaissent. L'oncle entre et s'assoit)*

**ARNAUD (tragique):** O Osaba... zer duzu?... Jes, baina zer duzu. Txuri-txuria zira... Zer zira, eri?

**OSABA:** Eri? Badauka burutik?

**ARNAUD:** Ai, ai, zoin txuri! Izitzen nauzu.

**OSABA:** NI txuri, ni (*se frotte la figure*)... Segur hiza...

**LES TROIS FILS (ils entrent tour à tour et disent tragiquement):** Zoin txuri ziren osaba, oi, ai, ei.

**OSABA:** Jes, baina halako beldur bat badiat... Ez al zaitak duela hamar urtheke bihotzeko min hura abiatu! Ai, ai, ai... Ekazue mihiku bat... (*il se regarde dans la glace*)... baina, ez nuk hain txuri... baina, usaian bezala nuk...

**ARNAUD:** Ba zera! Osaba gaizki ikhusten duzu...Begiek ere tronpatzen zauzte... jar zaite, jar... Ekar-azue ba zerbait kapaki (estalgi zeit) .

*(On le couvre d'un manteau)*

**OSABA:** Zer? Ez nuk ez hortan... Ez, ez... Utz nezazue... Ez diat fitsik.. Beldurtzen ere banuk... Jes, eritasun bera othe? Egon zizte hemen...

*(Tous s'installent)*

**OSABA (faisant les comptes tous haut):** bi eta bi lau...

**ARNAUD:** Ez osaba... tronpatzen zira.

**OSABA:** Zer! Tronpatzen! Bi eta bi lau.

**ARNAUD:** Ez, osaba, bi eta bi, bost...

**OSABA:** Baduka burutik? Bi eta bi, lau... eta ez bost.

**LES TROIS AUTRES:** O, Osaba!

**OSABA:** Zer o eta zer a?

**LES TROIS AUTRES:** B eta bo bost heldu da... Hala da ba...

**OSABA:** Baina-baina... Zer derasazue? Segur ziztea... Bi eta bi, lau duk eta ez bost.

**LES QUATRES:** Ezetz, osaba, ezetz... Bi eta bi, bost.

*(Ils comptent aussi sur les doigts)*

**OSABA:** To, oraikotik, oraikotik ez zakiat zer gertatu zautan... Baina...bai, hala dea gero... Bi eta bi lau... Ez bost.

**ARNAUD:** Gaixo Osaba... Zuk egun abduzu zerbait burutik beheitiko. Mihikua hobe ginuke ekaraztia.

**OSABA:** Ez zakiat... Ez zakait... Ez diat gehiago fitsik konprenitzen, bi eta bi lau, bost (*il hausse les épaules*).

**ARNAUD:** Lehenago ere entzun dut maiz buruko nahasdurak xifretarik lotzen direla.

**OSABA:** To, ez zakiat ba! Zerbait bideduk... Denen kntra ez dezakiat arrazoin izan.

**ARNAUD:** Hean, osaba emenen duzun ene galderari erreposta xuxen... Hortarik ezagutuko dugu hobeki. Ikhusten dituzu borta aitzineko oilo horiek. Hoik nola jina dira mundurat?

**OSABA:** Arroltzetarik, dudarik gabe...

**ARNAUD** (*éclatant de rire*): Arroltzetarik

(*Il fait signe aux autres de rire aussi... longs rires*)

**OSABA:** Jes... Zer duzue holako irritan?

**ARNAUD:** Oiloek ez dute arroltzerik egiten, osaba... Holakorik ez erran!

**OSABA:** Oiloek arroltzarik ez egiten! Zerk egiten dutek ba arroltzia?

**ARNAUD:** Lapinek, osaba, lapinek!

**OSABA:** Lapinek arroltzia?... Lapinek? Baina baduzia burutik

**LES QUATRES:** Gaixo osaba... Akitua poxi bat... Arrunt nahasia?

**OSABA:** Baina nik zer dut buruan? Bi eta bi, lau... Ez bost... Arroltzetik oiloa, ez lapina...

Lapinetik oiloa, txitoa... Bo, ez diat gehiago deus konprenitzen baina, seriocki, zuek ez ziztea nitaz trufatzen?

**LES QUATRES:** Trufatzen?

**ARNAUD:** Ez zinuke nahi, osaba!

**OSABA:** To, egin akozte auzoko Pattini oihu, jin dadin. Ikhusi behar diat hura ere zuen hitz beretan den.

**MANEX:** Joan niz behala

**OSABA:** Hau komedia! Orai burutik hoan othe naiz berritz? Ez nuk ba xaharra..(urne). Beharriak ere ontsa ditiat ba... Jes, jes, jes... (met à pleurer) Gaixo ni...

**MANEX** (*il rentre avec Pattin*): Huna Pattin.

**PATTIN:** Zer duzue? Zer duzue?

**ARNAUD:** Osaba zauku poxine bat burutik aldaratu. Ikhusteak ekhararazia zaitugu.

**OSABA** (*en pleurant*): Ban, gaixo Pattin (*gros sanglots*) bi eta bi bost tia... badakik hik (*il pleure*).

**ARNAUD** (*faint à Pattin le signe qu'il est toc et lui parle*): ... Ba burutik min poxi bat hasi...

**PATTIN:** Gaieon Piarreño... zer duzu, zer duzu?

**OSABA:** Bi eta bi bost direla badakik hik?

**PATTIN:** Ba, ba, hala dira... Ez zaitela kexa... hala dira.

**OSABA:** Horra, horra (*il sanglote*) Orai ikhusten diat arras nahasia naizela... ba, gaixo ni... Lapin arroltzerik ikusi duk behin ere hik?

**PATTIN:** Ba, ba Pierrino,... Emanen duzu hobeat emeki-emeki... Ez da fitsik hori... (*aux autres*) Deithua duzia mihikua?

**ARNAUD:** Hobe dea deitzia?

**PATTIN:** Ba, lehenbaitlehen hoberenik... erranen ziorat mihikiari! BI urhatsetan duk berdin...

**ARNAUD:** Bon, errakozu ba othoi

(*PATTIN sort*)

**OSABA:** Zer? Mihikua, mihikua duzia orai! Hortan niza ba? Etxe hau konjuratua edo zerbait baduk. Jes, jes, ni hortaritzen ahal nintzala? Baina oraino ere ez diat ez gero onhartzen, burutik nahasia naizela.

**ARNAUD:** Ez da fitsik hori, osaba... pasatuko zautzu ba.

**OSABA:** Agian ba... Ahatik, mihikiak ez dezula aifa ni erreteirat joaitia. Nahiago diat hemen berian hil.

**ARNAUD:** Osaba, ez da ez desohorerik erreteirat joaitia! Ez dire han hobendun edo kriminalak... Eriak dira han.

**OSABA:** Berdin dik, berdin dik.

**ARNAUD:** To, horra mihikua.

**MIHIKUA:** Agur, Jaunak.

**LES QUATRE:** Agur.

**OSABA:** Hor zirea Jauna! Nahasia omen niz burutik hala diote hauk.

**MIHIKUA:** Ban Pattinek, oro erran dauzkit.

**OSABA:** Pentsatzen dut zuk bederen egia erranen dautazula... Bi eta bi bost direa?

**MIHIKUA:** Ba, ba gaizoa! (*il lui prend le pouls*) Hean, ikhus, begi horiek (*il lui regarde les yeux*).

**OSABA:** Bost balinbadire, ba erroa niz ni...

**MIHIKUA:** Ean, mihi hori! (*OSABA tire la langue*) Libratzen zirea ontsa?

**OSABA:** Ba, ba, ausarki.

**LE DOCTEUR:** Maiz, hertzetarik libratzearen eskasia pozoiak bururat joaiten baitira... Zuk ere mihia zuri aire duzu... Ean bulhar eta bihotz horiek... Ekazue trapu bat. Khen azu paltoa (*Il l'ausculte en le faissant respirer, etc...*). Ez, bulharretan ez du deus handirik.

**OSABA:** Nik erraiten dautzut ez duala nehun fitsik senditzen zuek ez bazinautate erran burutik nahasia nintzala, lapin arrotze eta oriek aiphatuz, ez nintzan deusetaz ohartuko.

**LE DOCTEUR** (*aux QUATRE*): Poxino bat nahasia ba (*à OSABA*) zuk orai aire kanbio bat behar zinueke, buru hori poxi bat erreberritzeko.

**OSABA:** Norat nahi duzu joan nadien?

**LE DOCTEUR:** Pabe alde hortako airea litake hobekienik, mendi aire, itsasotik urrun.

**OSABA:** Pabe, niki ez dut nehor ezagutzen.

**MIHIKUA:** Igorriko zitut hôtel batetarat... Han izanen da mihikua ere... ontsa artatua izanen zira.

**OSABA:** Zer! St-Luc-erat? (*il se fâche tout rouge*) Ni St-Luc-erat! Baduzu kopetarik? Ni St-Luc-erat? (*il prend LE DOCTEUR à la gorge et le serre. LES QUATRE se précipitent pour les séparer*)... Debekatzen dautzut gehiago zangorik satzea hemen.

**ARNAUD** (*au MÈDECIN*): Barkatu Jauna! Othoi ikus azu nola den.

**LE DOCTEUR:** Ba, ba... Ez duk horren falta... Kriza batek hartu dik... Zer nahi duk... Eritasuna... Lehenbailehen joaitia hoberenik. Horrek hemen malurak eginen ditik. Horra beraz ez duk bertze erremediorik horrentzat... Aski ditutzue zuen alderdiak hartzia harat joaiteko... Eta erran egunian jinen nuk zuekilan, hara bereat hango mihikuen mintzatzeko.

**ARNAUD:** Ontsa da (*LE DOCTEUR sort*). Agur Jauna.

**OSABA** (*se lève et se promène*): Bon, engoitik, bardin zatak hilik ere ez nuk gehiago muntu huntako on. Joanen nuk joan behar bada, ahatik aferak aferak baitira, lehenik eginzn ditiat ontasunen partimenak, ni hil eta ez zizten kalapitan har.. Paperak prest-presta ezarriak ditiat zer emango dudan zuetarik bakotxari. Manex, ekarrak ene mahain gaineko keza hura (*MANEX s'exécute*). Ez nian ahatik uste hortaratu behar nuela. Poltsoa, bulharrak ontsa, eta futxo burua galdua. (*Il tire du coffre son testament puis le lit*)... Bon, huna nire partimenak nola eginak ditudan... Jar zaitze (*LES QUATRE s'assoent, il lit*) "Arnaud ene ilobari, zaharrena delakotz eta gehienik maite nauelakotz, uzten deaizkot ene jauregia, nere ontazun guziekin, hera, kabala eta errekolta guziekin... Horrentzat ene izaitze guziak jinak eta jitekoak. Bertze hiru ilhober, gaixtoak izan baitira enetzat eta ezdeusak, ukhanen dute bakoitxak 50 mila libera, Arnauk emanik". Horra ene testamenta.

**GANIX:** Zer, osaba! Baduzu kopeta holako testamenta baten egiteko ere...

**MANEX:** Uste duzu hortan libro zarela.

**JOANES:** Zertako Arnauk oro eta guk fitsik ez.

**GANIX:** Ba; zertako Arnauk oro... Zer du horrek guk baino gehiago.

**ARNAUD:** Ni nuk gero gehienik okupatu osabaz, nik zioiat atximendu handiena erakutsi egundaino.

**GANIX:** Ba, ba, erroteriat igorritz.

**ARNAUD:** Ban hortan ere, zuek baino hobia izan nuk, hik pozoiniatzia nahi huen, bertzek ukhatzia edo ithotzia... Ni ez baniz hor izan, ez zakiat batere zer eginen zinuten.

**OSABA:** Zer, ni itho edo urkatugo nahi baizinauten?

**GANIX:** Ene berdin zautak 50 mila libera izan edo fitsik ez izan... ahal duk osaba hemen berian ere.

**JOANES:** Eni ere berdin zautak orain bezala bizirik ere, ez gehiago ukaitekotan.

**OSABA:** Baina, esplikiatuko dautazia zer ditutzuen elhe horiek!

**GANIX:** Ba, ba osaba... zuk Arnaud oren hoberenarentzat daukazu. Arnauk pentsatua zuen behar zintuela errotzat pasarazi gero zure ontasunez jabetzeko.

**ARNAUD** (*le menaçant*): nauk, ixilik egon!

**GANIX** (*se débattant contre ARNAUD*): Ba, guk lagundu dugu bere planaren betetzen, zu erroterian sartu beharrez orok elgar aritu dugu zuri sinhets-arrazteko erroa zinela.

**OSABA:** A, ba!... Deabruen hirurak... Hori dea zuen (*il prend son bâton*) Huts-atzue leku hauk (*il les bat et les renvoie*) a, ba... Deubrien figurak... bazuten kopeta! Beharrik. Pentsatzia ere gehiago duk... Agozte ixtant bat... Eginen ditiat ba nik zuen partizenak ardi bat ez baituzue bihi batek ukanen (*il déchire le testament. Il s'assoit*). Hor dituzue konduak. Bi eta bi lau... Lau, eta ez bertze. Eta lapin arroltzerik ere ez... Baina oilo arroltzarik ba...

RIDEAU